



## **HORNIDURAK. Prozedura ireki erraztua**

### **ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA**

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK .....	1
1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA .....	1
2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENEKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....	1
3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA .....	2
4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA.....	2
II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.....	3
5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK.....	3
6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.....	4
7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA.....	6
III. ADJUDIKAZIOA .....	8
8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. ....	8
9.- BEHIN BETIKO BERMEA .....	10
10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA .....	10
IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA.....	11
11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK.....	11
12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA .....	12
V. KONTRATUA BURUTZEA.....	13
13.- KONTRATUA BURUTZEA .....	13
VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA .....	18
14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA .....	18



## **ADMINISTRAZIOARI HORNIDURAK EGITEKO KONTRATUA.**

### **ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA.**

#### **I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK**

##### **1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA**

1.1.- Kontratu honen xedea da agiri honen hasierako ezaugarrien taulako A) idatz zatian azaltzen den hornidura egitea.

1.2.- Ezaugarrien taulako A) idatz zatian ezarriz gero, kontratuaren xedea bertan azaltzen diren loteetan zatituko da.

Ezaugarrien taulako A) idatz zatian mugak ezartzen dira loteetarako eskaintzak aurkezteko eta loteak adjudikatzeko.

Baldin eta adjudikazio irizpideen aplikazioaren arabera enpresa lizitatzailer batek gehienez jaso daitezkeenak baino lote gehiago jaso ahal baditu, ezaugarrien taulako A) idatz zatiko irizpideak edo arauak aplikatuko dira zer lote adjudikatuko zaion erabakitzeko.

1.3.- Hornidura agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian ezartzen denarekin bat etorritik egin behar da.

Ondorio guztietarako, administrazio baldintza partikularren agiri hau, ezaugarrien taula, baldintza teknikoaren agiria eta horien eranskinak kontratu agiriak dira, eta halakoak diren aldetik alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatzeko egintzan sinatu beharko ditu, onartzen dituela adierazteko.

1.4.- Kontratazioa honako xedapen hauetan ezartzen denari lotuko zaie: agiri hau; baldintza teknikoaren agiria; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena (horren bidez Espainiako antolamendu juridikora aplikatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak); 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (HAKLAO); Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuak arautzen dituzten gainerako xedapen aplikagarri guztiak.

1.5.- Kontratuaren prozedura ireki erraztuaren bitartez adjudikatuko da; prozedura hori SPKLko 159. artikulua eta HAKLAOko edo horren ordezko arau xedapeneko artikulua egokiek arautzen dute.

##### **2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENEN AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA**

2.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa eta lizitazio oinarria agiri honetako ezaugarrien taulako B) idatz zatian zehazten dira.



Kontratuaren prezioa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada hornitu beharreko unitateen arabera, kontratuaren gehieneko aurrekontua eta unitateko prezioak agiri honetako ezaugarrien taulako B) idatz zatian agertzen direnak izango dira.

2.2.- Kreditu nahikoa dago kontratu honen burutzapenaren ondorioz Administrazioak edukiko dituen betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko; ezaugarrien taulako C) idatz zatiko aurrekontu aplikazioan zehazten da.

Adierazten bada gastu espediente baten izapidetze aurreratua dela, prestazioak egiten hasteko ezinbestekoa izango da ekitaldiko indarreko aurrekontu taldean kreditu egoki eta nahikoa egotea.

2.3.- Kontratuaren prezioa adjudikazioan ezarriko da; ezin da izan Administrazioak ezartzen duen lizitazio oinarria baino gehiago.

Ondorio guztietarako, honako hauek sartzen dira kontratuaren prezioan: enpresa kontratistak kontratua burutzeko egin beharreko gastu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak, indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko tasa guztiak, eta zerga eta lizentzia guztiak, udalena, probintziakoak zein Estatukoak.

### **3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA**

3.1.- Enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzearen arriskuak.

3.3.- Prezioen berrikuspena bidezkoa denez zehazteko, ezaugarrien taulako D) idatz zatian ezartzen dena hartuko da aintzat. Berrikuspena bidezkoa ez bada, idatz zati horretan adieraziko da. Aldiz, prezioen berrikuspena bidezkoa bada, idatz zati horretan berrikuspenarako aplikatuko diren indizeak edo formula polinomikoak zehaztuko dira.

Prezioen berrikuspenaren araubide juridikoa SPKLko 103 - 105 bitarteko artikuluetan eta HAKLAOko 104., 105. eta 106. artikuluetan ezartzen da.

3.3.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen ez bada, kontratua burutzeko epealdia luzatzeak ez du inolaz ere berrikuspena eragingo, luzapenaren arrazoia Administrazioari egotzi ezean edo ezinbestekoa izan ezean (ezinbesteko kasuak SPKLko 239. artikuluan ezartzen dira).

3.4.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen bada, aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da bi baldintza hauek betetzea: kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gauzatuta egotea eta kontratua formalizatu zenetik bi urte igarota izatea. Beraz, ez gauzatze ehuneko (ehuneko 20) ez kontratuaren iraupeneko lehen bi urteak, kontratuaren formalizaziotik zenbatuta, ezin dira berrikusi, SPKLko 103. artikuluan ezartzen den bezala.

### **4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA**

Administrazio baldintza partikularren agiria, baldintza teknikoaren agiria eta gainerako dokumentazioa kontratatzailearen profilean eskuratu ahal izango dira eskaintzak aurkezteko epealdian.

Eskaintza aurkeztu aurretik enpresa interesdunek ezaugarrien taulako E) idatz zatian aipatzen den zerbitzura jo ahal izango dute lizitazioaren inguruabar berezien berri jakiteko.



Baldin eta, ezarritako epealdiaren barruan, enpresa interesdun batek agiriei eta gainerako dokumentazioari buruzko informazio gehiago eskatzen bada, SPKLko 138. artikuluan eta HAKLAOko 78. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Agiriez eta dokumentazio osagarriez eskatzen den informazioa eskaintzak jasotzeko ezarritako epealdia amaitu baino sei egun lehenago gutxienez eman behar da (izapidetzea presazkoa bada, hiru egun lehenago; salbuespena: harmonizatutako arauetara lotutako kontratuetan, lau egun lehenago), baldin eta eskaera gutxienez hamabi egun lehenago aurkezten bada edo kontratazio organoak kontratuaren ezaugarriak eta prozedura kontuan hartuta agiritan ezartzen duen epealdian, ezaugarrien taulako E) idatz zatian ezartzen den bezala.

Baldin eta eskaeraren xedea baldintza teknikoaren agirian, administrazio baldintza partikularren agirian edo gainerako dokumentazioan ezartzen den zerbitzu argitzea bada, erantzuna loteslea izango da eta kontratatzailearen profilean agertuko da.

Kontratuaren espedientearen inguruko informazio guztiak eta Administrazioaren kontratu jardunaren inguruko datu eta informazio guztiak kontratatzailearen profilean agertuko dira, SPKLko 63. artikuluan ezartzen den bezala.

Kontratatzailearen profila aztertzeko Administrazioaren atarian sartu behar da; atari aurrean aipatutako ezaugarrien taulako E) idatz zatian zehazten da.

---

## **II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.**

### **5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK.**

5.1. Kontratuaren lizitaziorako eskaintza aurkeztu ahal izango dute (aurrerago zehaztuko da nola) Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzea debekatuta ez badute SPKLko 71. artikuluan ezartzen denaren arabera, Lizitatzaileren eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta badaude eta kaudimena eta lanbide gaitasuna edo gaitasun teknikoa frogatzen badituzte edo, SPKLk eskatzen duen kasuetan, behar den sailkapena badute. Gainera, enpresek kontratuaren xede den jardura edo zerbitzua egiteko eskatzen den enpresa edo lanbide gaikuntza eduki behar dute (ezaugarrien taulako F idatz zatian zehazten da).

Pertsona juridiko bat kontratu baten lizitaziora aurkeztu ahal izateko ezinbestekoa da kontratuaren prestazioak haren helburuen, xedearen edo jardueren esparruan egotea estatutuen edo sorrera arauen arabera.

Kontratu bat sinatzeko kaudimena eta gaitasuna frogatu nahi dituen enpresa batek beste entitate batzuetara jo dezake (ez da kontuan hartuko haiekiko harreman juridikoa nolakoa den), haien baliabideak erabiltzeko. Horretarako, frogatu behar du kaudimena eta gaitasuna kontratuaren iraunaldi osoan edukiko dituela eta beste entitate horiek ez dutela debekatuta kontratazioa SPKLko 75. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

SPKLko 69. artikuluekin bat etorritik berariaz eratzten diren aldi baterako enpresa elkarteek ere aurkez dezakete eskaintza. Elkarteko enpresa bakoitzak bere jarduteko gaitasuna, finantza eta ekonomia kaudimena eta gaitasun teknikoa edo lanbide gaitasuna frogatu behar ditu, eta horretarako ondoko baldintzetan adierazten agiriak aurkeztu behar ditu. Agiri pribatu batean



eskaintza egiten duten enpresen izenak eta gainerako datuak adierazi behar dira, bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren indarraldian elkartearen ordezkariak edukiko duen pertsona edo entitatea zehaztu behar dira, eta kideek adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko adjudikazioa jasoz gero. Agiri hori elkarteko enpresa guztien ordezkariak sinatu behar dute.

5.2. Lizitazioan parte hartzeko eskaera (eta, behar denean, eskaintza) aurkezteak berekin ekarriko ditu honako hauek:

- agiri honetako baldintza guztiak eta ezaugarrien taulan, baldintza teknikoaren agirian eta kontratuko gainerako agirietan zehazten den guztia onartzea, inolako baldintzarik gabe eta salbuespenik aplikatu gabe.
- aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta kontratuaren xede diren prestazio guztiak kontratatze eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela berresten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- kontratazio mahaiarentzako eta organoarentzako baimena, Sektore Publikoko Lizitazioaren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko eragile ekonomikoaren zerrenda ofizialean bildutako datuak aztertu ahal izateko.

Zuzenean zein zeharka (lotutako enpresen bidez) kontratu baten zehaztasun teknikoak edo hura prestatzeko agiriak idazten parte hartzen duten enpresek ezin izango dute lehiatu kontratu hori adjudikatzeko prozeduran, ez eta kontratazio prozedura prestatzeko lanetan kontratazio organoari aholkuak ematen dizkieten enpresek ere, baldin eta jardun horren ondorioz lehia zapuzten bada edo enpresak onura bereganatzen badu gainerako lizitazioarekiko lehiari.

Enpresa lizitazioarekiko bakoitzak eskaintza bat bakarrik aurkeztu ahal izango du. Banako lizitazioarekiko ezin dute aurkeztu beste eskaintzarik aldi baterako enpresa elkarte batean. Arau hauek hausteak berekin ekarriko du aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

Hala ere, ezaugarrien taulako G) idatz zatian aldaera batzuk aurkezteko aukera ezar daiteke. Hala gertatzen denean, aldaerak bertan zehazten diren elementuekin eta baldintzekin bat etorriko aurkeztu behar dira.

Horrelako kasuetan, ohiko eskaintza ekonomikoarekin batera proposatzen diren gainerako soluzioei dagozkienak ere aurkeztu behar dira; gainera, eskaintza ekonomikoan eskatzen diren datuak adierazi behar dira eta aldaeren justifikazioak aurkeztu behar dira.

## **6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.**

Lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistemari esker eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkez daitezke, agiriak bidali eta jaso daitezke, eta kontratuak sinatu daitezke. Sistema hori Administrazioaren atarian dago (ezaugarrien taulako E idatz zatian aipatzen da).

Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak egiteko lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistema hori erabili behar da, XIII. eranskinean azaltzen diren jarraibideak aintzat hartuz. Ezaugarrien taulako I) idatz zatian aipatzen den epealdiko azken egunera arte egin ahal izango dira. Azken eguna balio gabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera luzatuko da.



Baldin eta, SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian azaltzen diren kasuetan, ez badira nahitaez erabili behar baliabide elektronikoak eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, dokumentazioa administrazio kontratatzailearen erregistro orokorrean aurkeztu behar da (egoitza ezaugarrien taulako H idatz zatian zehazten da) edo postaz bidali behar da; hori ezaugarrien taulako I) idatz zatian zehazten den epealdiko azken eguneko arratsaldeko 14:30ak arte egin ahal izango da (azken egunean jendearen arretarako ordutegi berezia badago, eskaintzak eta eskaerak eguerdiko 12:30ak arte aurkeztu ahal izango dira erregistro orokorrean). Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Eskaintza eta atxikitako dokumentazioa postaz bidaliz gero, postetxean bidalketa egin den eguna frogatu behar da eta egun berean iragarri beharko da posta elektronikoz Ezaugarri Taulako E) atalean adierazitako helbidera, HAKLEOren 80. artikuluan jasotako moduan.

Bi baldintza horiek bete ezean, ez dira agiri horiek onartuko, baldin eta eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero jasotzen badira. Epe hori igaro eta hurrengo hamar egunetan agiririk jaso ez bada, agiri horiek ez dira onartuko inondik inora.

Enpresa lizitatzailerak gutun azal batean edo bitan (A eta B, ezaugarrien taulako J idatz zatian ezarriz gero) aurkeztu behar du dokumentazioa, itxita. Honako datu hauek idatzi behar ditu denetan, erraz irakurtzeko moduan:

- a) lizitazioa
- b) enpresaren izena
- c) eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak, eta enpresan duen kargua

Gutun azalak nahitaez sinatu behar ditu enpresa lizitatzaileraren ordezkariak.

Eskaintza aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa batzuek aurkeztu badute, denen ordezkariak sinatu behar dute.

Eskaintza aurkeztu ondoren lizitatzailerak ezin izango du atzera egin, bidezko arrazoia daukala frogatu ezean.

**6.1.- A GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.** Eskaintza ekonomikoan lizitazioaren xede den zerbitzua emateko prezioaren zenbatekoa adierazi behar da. Aparteko partida batean zenbateko horri dagokion balio erantsiaren gaineko zergaren karga zehaztu behar da (eredua I. eranskinean).

Gainera, eskaintza ezaugarrien taulako M) apartatuan adierazten diren adjudikazio irizpideen arabera baloratzeko, modu automatikoan edo formula bidez, behar diren agiriak aurkeztu behar dira.

Gutun azal honetan lizitatzaileraren erantzukizunpeko adierazpena sartu behar da (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera), eta bertan honako hauek azaldu beharko ditu: eskaintza aurkeztu duen sozietatearen ordezkaria dela; , Lizitatzaileraren eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta dagoela lizitatzailerak behar den finantza eta ekonomia kaudimena eta gaitasun teknikoa dauzkala, edo bidezko sailkapena ; jarduera egiteko behar diren baimenak dauzkala; ez daukala debekatuta kontratatzea; kaudimena eta gaitasuna beste batzuen bidez ziurtatuz gero, SPKLko 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa hartzen duela.



Enpresak beste enpresa batzuetara jotzen badu kaudimena, gaitasuna eta baliabideak ziurtatzeko, SPKLren 75. artikularekin bat etorritik, haietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du horrelako kasuetarako behar den informazioarekin (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera).

Enpresa batzuek ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA eratzen badute lizitazioan parte hartzeko, elkarteko enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera). Horrez gainera, dokumentu batean aldi baterako elkarteko enpresen izenak eta inguruabarrak adierazi behar dituzte eta bakoitzaren partaidetzaren berri eman behar dute, ordezkari edo ahaldun bakarra nor den azaldu behar dute, eta adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela kontratua adjudikatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko, SPKLren 69.3 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da lizitatuzailea enpresa talde bateko kidea delako adierazpena, behar denean (eredua V. eranskinean).

**6.2.- B GUTUN AZALA: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIO JUDIZIOA EGINEZ APLIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA.** Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, gutun azal honetan honako dokumentu hauek sartu behar dira: ezaugarrien taulako M) idatz zatian ezartzen diren adjudikazio irizpideak (formula bidez ebaluatu ezin direnak) baloratzeko behar diren dokumentuak; baldintza teknikoaren agirian aipatzen diren gainerako dokumentu guztiak.

Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, Administrazioak enpresa lizitatuzaileei eskatu ahal izango die kaudimena eta gaitasuna edo, behar denean, sailkapena frogatzeaz gainera kontratuaren xedea behar bezala burutzeko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak jar ditzatela (eskaintzan zehaztu behar dira, II. eranskineko ereduaren arabera).

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da enpresak emandako informazioaren konfidentzialtasunaren adierazpena, behar denean (eredua III. eranskinean).

Proposamena eta erantsitako dokumentazioa postaz bidaltzen badira, beste orri batean gutun azalaren edukia zerranda zenbakitu bat agertuko da.

6.3.- Kontratua adjudikatu aurretik zein adjudikatu ondoren zein lanak egiten diren artean administrazioak egiaztatu ahal izango du egia denez adierazten dena B gutun azaleko agirietan, enpresa adjudikaziodunak bere kontratatze gaitasunaz aurkeztu duen dokumentazioan eta, behar den kasuetan, ezaugarrien taulan gauzatze baldintza bereziak betetzen direla frogatzeko sartzen diren agirietan. Enpresak adierazitako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak izatea kontratua deuseztatze arrazoia izan daiteke, kontratistari egotz dakiokeen hutsegitea baita, eta horrek behin betiko bermea galtzea ekar dezake edo, bestela, bermerik jarri ez bada, edo eratu beharrik izan ez bada, bermearen adinako kalte ordaina ordaindu beharra. Gainera, Administrazioari eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko dira, hain zuzen jarritako bermearen zenbatekoaz gorako kopurua.

## **7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA**

7.1.- KONTRATAZIO MAHAIA. Kontratazio Mahaia eratuko da jasotzen diren eskaintzak aztertzeke. Mahaiko kideak ezaugarrien taulako K) idatz zatian ezartzen dira.



7.2.- ESKAINTZAK AZTERTZEA. Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, Kontratazio Mahaiak B gutun azalak irekiko ditu (baldintza teknikoak eta balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa). Gero, B gutun azaletako dokumentazioak baloratu behar dituen organoari emango zaizkio.

Ezaugarrien taulako L) idatz zatian ezartzen diren tokian, egunean eta orduan Kontratazio Mahaiak lizitaziorako onartutako enpresen A gutun azalak irekiko ditu egintza publiko batean, hau da, eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu daitezkeen gainerako irizpideei dagokien dokumentazioa dituzten gutun azalak. Egintza horretan, A gutun azalak ireki aurretik, baldin eta adjudikaziorako kontuan hartu behar badira balio judizioaren arabera haztatzen diren balorazio irizpideak, B gutun azaletako dokumentazioetako eskaintzen alderdi teknikoen balorazioa irakurriko da.

7.3.- ESKAINTZEN KALIFIKAZIOA.- Eskaintzaren bat ez badator bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio oinarria gainditzen bada, ezarritako eredu funtsean aldatzen bada, zenbatekoan errore nabarmena badago, edo enpresa lizitatuak onartzen badu errore edo akatsen bat dagoela eta ondorioz eskaintza ez dela bideragarria, Kontratazio Mahaiak bertan behera utziko du ebazpen arrazoitu baten bidez (SPKL, 84. artikulua).

Hain zuzen ere, eskaintza lizitaziotik kanpo uztea ekarriko du balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa aparteko gutun azal batean aurkeztu beharra ez betetzeak.

7.4.- ESKAINTZA BAXUEGIAK.- Eskaintzak baxuegitzat jotzeko ezaugarrien taulako N) idatz zatiko parametroak aplikatuko dira. Eskaintza horiek direla eta SPKLko 149. artikuluan eta HAKLAOko 85. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Kontratazio Mahaiak uste badu eskaintzaren batean akatsen bat egon daitekeela, aurkeztu duen enpresa lizitatuak (edo enpresei) eskatu beharko dio azal dezala zergatik diren hain baxuak eskaintzako prezioak edo kostuak, edo zer gertatzen den eskaintza akastuntzat jotzea eragin duen parametroarekin, arrazoiak xehatuta, eta hori egiteko bost egun baliaduneko epealdia emango dio, komunikazioa bidaltzen denetik zenbatu beharrekoa; azalpenarekin batera lizitatuak behar diren datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu.

Kontratazio Mahaiak enpresa lizitatuak ezarritako epealdiaren barruan emandako informazioa eta dokumentazioa aztertuko ditu eta enpresa lizitaziorako onartzeko edo ez onartzeko proposamen arrazoitua bidaliko dio kontratazio organoari.

Baldin eta, enpresa lizitatuaren justifikazioa eta bidezko txosten teknikoak kontuan hartuta, kontratazio organoak uste badu jasotako informazioak ez duela ondo azaltzen zergatik diren hain baxuak eskaintzako prezioak edo kostuak eta, ondorioz, erabakitzen badu ezarritako balio akastunak direla eta eskaintza ezin dela bete, lizitaziotik kanpo utziko du. Oro har, akastuntzat jotzen diren eskaintzak lizitaziotik kanpo utziko dira oinarrian dauden hipotesiak edo jardunak desegokiak izanez gero irizpide teknikoen, ekonomikoen edo juridikoen arabera.

7.5.- ESKAINTZEN EBALUAZIOA.- Kontratazio Mahaiak eskaintzak ebaluatuko ditu agiri honetako M) idatz zatian garrantziari eta ponderazioari dagokionez ordena beherakorrean idatzita dauden balorazio irizpideei jarraiki. Hala, egoki deritzon txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu eta bere proposamena egingo dio kontratazio organoari. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzarik onena preziorik baxuena ematen duena izango da.





Balorazio irizpideen aplikazioaren ondoren bi eskaintza edo gehiago berdindurik gertatzen badira balorazio onenarekin, ezaugarrien taulako M) idatz zatiko irizpideak aplikatuko dira (bertan agertzen diren ordenan) berdinketa hausteko.

Irizpide horiek ezarri ez badira, adjudikazio irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintza berdindurik gertatzen badira, SPKLko 147.2 artikuluan ezartzen diren irizpide sozialak hartuko dira kontuan kontratua adjudikatzeko, bertan agertzen diren ordenan eta erreferentziatutako eskaintzak aurkezteko epealdiko azken eguna hartuta.

---

### **III. ADJUDIKAZIOA**

#### **8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.**

8.1.- Kontratazio Mahaiak, SPKLko 150. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, kontratazio organoari bidaliko dio neurritz kanpokoak edo akastunak izateagatik lizitaziotik kanpo utzi ez diren eskaintzen zerrenda, goitik beherako ordenan sailkatuta, eta horrekin batera adjudikazio proposamena eta akta ere bai.

8.2.- Kontratua adjudikatzeko proposatzen den enpresa lizitatzailerak kontratua adjudikatu aurretik kontratazio organoari frogatu beharko dio badauzkala gaitasuna eta kaudimena frogatzen dituzten agiriak, administrazio baldintza partikularren agiriko 8.3 baldintzan eskatzen direnak, eta agiriok baliozkoak direla ere bai.

Eskaintzak aurkezteko epealdia amaitzen denean ebatziko da Administrazioarekin kontratatze eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direnez eta kontratatze debekurik dagoenez; hala bada, egoerak bere horretan jarraitu beharko du kontratua formalizatzen denean, hau da, baldintza horiek bete beharko dira eta ezin da egon kontratatze debekurik.

Aurrekoa betetzeko, zerbitzu egokiak eskaintzarik onena egin duen enpresa lizitatzailerari eskatuko dio komunikazioa bidaltzen denetik zazpi egun balioudun pasatu baino lehen aurkez ditzala honako hauek frogatzen dituzten agiriak, bai enpresa lizitatzailerari dagozkionak, bai gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresei dagozkienak: 140. artikuluko 1. idatz zatiko a) – c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak; zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela (edo baimena eman kontratazio organoari frogagiriok zuzenean eskuratzeko); badauzkala ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezartzen denaren arabera kontratua burutzeko behar diren baliabideak; agiri honetako 9. baldintzaren arabera behar den behin betiko bermea eratu duela.

8.3.- 140. artikuluen 1. apartatuko a) – c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarren frogagiriak direla eta, Kontratazio Mahaiak honako hauek egiaztatuko ditu lizitatzaileraren eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean: enpresa lizitatzailerak behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak botere nahikoa duela eskaintza egin ahal izateko, badituela ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa edo, hala behar denean, dagokion sailkapena, eta ez duela kontratatze debekurik.

Baldin ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa eta lanbide gaitasuna ezin bada egiaztatu lizitatzaileraren eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial bateko inskripzio ziurtagiriaren bidez, enpresa lizitatzailerak horren frogagiriak aurkeztu beharko ditu eta, behar denean, enpresa edo lanbide gaikuntzaren frogagiriak ere bai (ezaugarrien taulako F) idatz zatian



azaltzen dira), Legearen 87. eta 89. artikuluetan ezartzen denaren arabera eta gutxieneko sailkapen eta kategoria talde edo azpitaldea kontuan hartuz, baldin eta kontratuaren xedea indarreko sailkapen talde edo azpitaldeetako batean badago (horretarako, kontratuaren CPV kodea hartu behar da aintzat).

Aldi baterako elkarteak eratuta lehiatu nahi duten enpresek banaka aurkeztu behar dute aurreko idatz zatietan eskatzen den dokumentazioa.

Jatorrizko agiriak edo kopia kautoak aurkeztu behar dira, indarreko legeriarekin bat etorritik.

SPKLko 65 - 76 bitarteko artikuluetan eta 95. artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eta Kontratazio Mahaiak aurkeztutako ziurtagirien eta agirien inguruko argibideak eskatu ahal izango dizkie enpresei, edo beste batzuk aurkezteko; hala eginez gero, enpresek bost egun balioduneko epealdia edukiko dute eskaerari erantzuteko.

Atzerriko enpresek VI. eranskinean xedatzen dena bete behar dute.

8.4.- Arabako Foru Aldundiko kontratazio organoak, eskuragarri dauden datu bitartekaritzako plataformen bidez, adjudikazio proposamenaren xede den enpresa lizitatuak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak lortuko ditu, bai eta ekitaldi honetan jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen informazioa ere, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean.

Kontsulta hori osatzeko, enpresa hori zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio organoak dokumentu hauek aurkezteko eskatu ahal izango dio adjudikazio proposamena jaso duen enpresa lizitatuari:

- Lizitatuaren zerga egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioak emandako ziurtagiria eta zergapeko jarduerak egin dituen lurraldeetako zerga administrazioek emandakoak, lizitatuak bere zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen dutenak.

Lizitatuak merkataritzakoa ez den sozietatea bada, edo nortasun juridikorik gabeko entitateak, ziurtagiriak sozietatearen, entitatearen edo establezimenduaren titularrari buruzkoak izan behar dira.

Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharren ziurtagiria Administrazioak eskatuko du ofizioz.

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azken ordainagiria edo, jarduerari aribideko ekitaldian ekin bazaio, zerga horren matrikularen alta, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Gainera, zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, lizitatuak haren kuoten ordainketak egunean dauzkala frogatzen duena.

Lizitatuaren eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta daudela frogatzen duen indarreko ziurtagiria dutela frogatzen dutenek ez dute edukiko zertan aurkeztu ziurtagiri



hauek hura indarrean dagoen artean, baldin eta bertan azaltzen diren inguruabarrak aldatzen ez badira; kontratua formalizatzen duen agirian enpresak berariaz adierazi beharko du indarreko ziurtagiria daukala eta bertan azaltzen diren inguruabarrak ez direla aldatu. Nolanahi ere, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja eman ez zaiola dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

8.5.- Aurreko 8.2 puntuan azaltzen dena ez bada betetzen ezarritako epealdiaren barruan, enpresa lizitzaileak eskaintza bertan behera utzi duela pentsatuko da eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3a eskatuko zaio (BEZ gabe) zehapen kontzeptuan; gero dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitzaileari.

## **9.- BEHIN BETIKO BERMEA**

9.1.- Eskaintzarik onena aurkeztzen duen enpresa lizitzaileak bermea jarri beharko du kontratazio organoaren esku: eskaintzako azken prezioaren ehuneko 5, gehienez, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe (ezaugarrien taulako O idatz zatia).

Kontratuaren zenbatekoa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada, eratu beharreko bermearen zenbatekoa lizitazioaren gehieneko aurrekontuaren arabera finkatuko da, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe.

Kontratuko prezioak behin-behinekoak izanez gero, ehuneko finkatutako gehieneko prezioari aplikatuko zaio, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe.

SPKLko 107.2 artikuluan arautzen diren kasu berezietan berme osagarria eskatu ahal izango da, ezaugarrien taulako O) idatz zatian ezartzen bada.

9.2.- Administrazioak enpresa lizitzaileari eskatuko dio komunikazioa bidaltzen denetik zazpi egun baliodun pasatu baino lehen aurkez dezala bidezko behin betiko bermea eratu duela frogatzen duen dokumentazioa.

Betekizun hau betetzen ez bada enpresari egotz dakioken arrazoi bategatik, Administrazioak ez dio adjudikatuko kontratua eta SPKLko 150.2 artikuluko azken paragrafoan xedatzen dena aplikatuko da.

9.3.- Bermea eratzeko SPKLko 108. artikuluan ezartzen diren bideak erabil daitezke, HAKLAOko 55. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzak beteta. Onartutako ereduak VIII., IX., X. eta XI. eranskinetan daude.

Behin betiko bermearekin SPKLko 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo zaie.

Bermeak itzultzeko eta kitatzeko SPKLko 111. artikuluan eta HAKLAOko 65. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

## **10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENEA**

10.1.- Kontratazio organoak adjudikaziorako proposatzen den enpresa lizitzaileak aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoko bost egun baliodunetan adjudikatu beharko du kontratua.



10.2.- Administrazioak bi aukera edukiko ditu: kontratua eskaintza onena egin duenari adjudikatzea, adjudikazio irizpideak aplikatuta, edo kontratua adjudikatu gabe uztea, baldintzen agirietan ezarritako irizpideen arabera onar daitekeen eskaintzarik ez badago.

Hala ere, SPKLko 152. artikuluan ezartzen denarekin bat etorrituz, Administrazioak, kontratua formalizatu baino lehen, uko egin ahal izango dio adjudikatzeari herritarren interesak direla eta, edo bertan behera utzi ahal izango du izapidetutako prozedura, konponezineko akatsik gertatu bada. Batera zein bestera, enpresa lizitatzaileri konpentsazioa eman beharko die ezaugarrien taulako Q) idatz zatian ezartzen den bezala.

10,3.- Adjudikazioan arrazoiak azaldu beharko dira; baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatzaileri eta, gainera, kontratatzailearen profilean agertuko da hamabost egunez.

Jakinarazpenean adjudikazio prozeduran izan diren enpresek adjudikazio erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsua aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia eman beharko da. Honako datu hauek zehaztu behar dira, hain zuzen:

- a) Baztertu diren enpresa hautagaiak direla eta, bazter uzteko kontuan hartu diren arrazoen laburpena.
- b) Adjudikazio prozeduratik kanpo utzitako enpresa lizitatzaileri dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta, eta enpresa lizitatzaileren balorazioen banakapena (adjudikaziodunarena barne).
- c) Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunaren izena, beraren eskaintzaren ezaugarriak eta onartutako gainerako eskaintza guztiak gaituta kontratua berari adjudikatzea eragin duten onurak.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epealdia zehaztu beharko da, SPKLko 153.3 artikuluan ezartzen den bezala.

10.4.- Aurkezten diren eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientearen artxibatuko dira.

Baldin eta, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazitako kasuren bat betetzen delako, ez bada nahitaezkoa bitarteko elektronikoak erabiltzea proposamenak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, behin kontratua ebatzi ondoren eta errekurtsuak aurkezteko epeak errekurtsorik aurkeztu gabe igarotzen badira, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da.

Urtebetean enpresa lizitatzailerek dokumentazioa eskatzen ez badu, ezabatu egin ahal izango da.

---

## **IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

### **11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK**

11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpenaren hartu agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatu aurretik ezaugarrien taulako R) idatz zatian aipatzen diren kontratuen polizen eta lehen primen ordainagirien kopiak aurkeztu beharko ditu.



Enpresak bere kargura kontratatu behar ditu aseguru horiek eta bere kargura mantendu kontratuaren iraunaldian eta berme aldian.

Bermeen aseguru mugak Administrazioak zehaztuko ditu kontratuaren xedearen ezaugarriak kontuan hartuta.

11.2.- Kontratua indarrean den artean kontratazio organoak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio erakuts diezaiola aseguru dokumentazioa edo, bestela, eman diezazkiola aseguru horien polizen kopia edo ziurtagiriak, eta frogatuz diezaiola primen ordainketak egunean dauzkala. Kontratistak eskatutako guztia egin beharko du, eta egiten ez bada, kontratazio organoak ziurtapenen edota fakturen ordainketa eten ahal izango du, bai eta, obrak jasota badaude, berme aldiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hau ez da konputatuko kalte ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizunak sor ditzake.

## **12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

12.1.- Administrazioaren kontratuak lizitazioarekin guztiz bat datorren administrazio agirian formalizatu beharko dira. Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresek 12.2 eta 12.3 idatz zatietan ezartzen den epealdian frogatu beharko dute ura eskritura publikoan eratu dela. Elkartearen iraupena kontratua azkendu artekoa izango da. Gainera, aldi baterako enpresa elkartearen IFZ aurkeztu beharko da.

12.2.- Kontratuaren adjudikazioaren kontra kontratazioaren arloko errekurtsio berezia aurkeztu ahal bada, ezin izango da formalizatu enpresa lizitazailerik adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen.

Kontratazio organoak enpresa adjudikaziodunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik bost egun pasatu baino lehen (izapideak presaz eginez gero, hiru egun), aurreko paragrafoan ezartzen den epealdian kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkezten ez bada. Gauza bera egingo da errekurtsioa ebazteko eskumena daukan organoak etendura indargabetzen duenean.

12.3.- Gainerako kasuetan, enpresa lizitazailerik adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen formalizatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun baliodun pasatu baino lehen).

12.4.- Enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkikeen arrazoiengatik kontratua aipatutako epealdian formalizatzen ez bada, Administrazioak lizitazioaren oinarriko aurrekontuko ehuneko 3 eskatuko dio (BEZ kanpo) zehapen kontzeptuan; hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontra ordainduko da, eraturik egonez gero. Gainera, SPKLko 71. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran ezartzen dena aplikatuko da.

Kasu horretan, eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitazailerik adjudikatuko zaio kontratua, agiri honetako 8. baldintzan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren. Aurreko idatz zatietan ezartzen diren epealdiak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, enpresa kontratistari atzerapenak eragiten dituen kalteen ordaina emango zaio.

12.6.- Kontratuari ezin izango zaio ekin formalizatu gabe dagoen artean, espedientea presaz izapidetzen denean izan ezik.



---

## **V. KONTRATUA BURUTZEA**

### **13.- KONTRATUA BURUTZEA**

13.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Kontratuaren arduraduna izango da Ezaugarri Taulako AD) apartatuan aipatutako kontratazio organoari atxikitako lanpostuaren titularra, titulazio egokia eta nahikoa duena, eta itundutako prestazioa behar bezala egiten dela egiaztatzeaz, koordinatzeaz eta zaintzeaz zuzenean arduratuko dena.

Hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera beteko dituzte dagozkien jarduerak.

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen Administrazioak pertsona arduradunaren berri emango dio enpresa kontratistari, eta gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.

### **13.2.- KONTRATUA BURUTZEKO ARAU OROKORRAK**

13.2.1.- Epealdia eta emateko lekua. Hornitu beharrekoa fabrikatzeko edo emateko epealdia ezaugarrien taulako S) idatz zatian ezartzen da; kontratua formalizatzeko agiria sinatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Ezaugarrien taulako S) idatz zatian ezarriz gero, kontratua behin edo hainbat aldiz luzatu ahal izango da; luzapenak kontratazio organoarekin adostuko dira eta nahitaezkoak izango dira enpresarentzat.

Izapidetzea presazkoa bada, kontratuari formalizatzen den egunetik hilabete pasatu baino lehen ekin behar zaio. Epealdi horretan kontratuko lanei ekiten ez bazaie, kontratua suntsiarazi ahal izango da, honako kasu honetan izan ezik: atzerapena ezin bazaie egotzi administrazio kontratatzaileari ez enpresa kontratistari eta horren berri ematen bada arrazoitutako ebazpenean.

Hornidura Administrazioak adierazten dituen zentroetan emango da (ezaugarrien taulako T) idatz zatian zehazten dira), funtzionatzeko moduan baldintza teknikoan agirian ezartzen den bezala. Garraioaren, instalazioaren eta ematearen gastuak enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Hornidura nolakoa den gorabehera, enpresa adjudikaziodunak ez du edukiko eskubiderik inolako ordainik jasotzeko ondasunek Administrazioari eman aurretik jasaten dituzten galera, matxura eta kalteengatik, jasoketan berandutzea gertatu ezean.

13.2.2.- Horniduren egiaztapenak. Administrazioak SPKLko 303. artikuluan ezartzen diren ahalmenak dauzka. Hain zuzen ere, fabrikazioan zehar nahi duen guztietan egiazta dezake ondasunen kalitatea. Honen ondorioetarako, ahaldundutako Administrazioako pertsona batek lehengaiak kontrolatu ahal izango ditu in situ, noiznahi fabrikazioan zehar eta aurretik abisatu gabe, enpresak eskainitako materialekin bat datozen egiaztatzeko. Hala ez bada, desadostasun akta egingo da, eta horrek kontratua suntsitzea ekar lezake.

13.3.- EZINBESTEKO KASUAK. Ezinbesteko kasuetan enpresa kontratistak jasaten dituen kalte-galeren ordaina jaso ahal izango du, baldin eta zuhurtziarik gabe jardun ez bada.



Ezinbesteko kasuak SPKLko 239. artikuluan arautzen dira. Kasu horiek HAKLAOko 146. artikuluan xedatzen denarekin bat etorri izapidetuko dira.

13.4.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ EGITEAGATIK ETA ATZERATZEAGATIK. Kontratuaren xedea gaizki egiten bada, kontratua burutzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira edo enpresa kontratistak kontratuan zehazten den prestazioetako baten burutzapen partziala betetzen ez badu berari egotzi ahal zaio arrazoi batengatik, zehapena ezarri ahal izango da, ezaugarrien taulako U) idatz zatian ezartzen bada.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua burutzeko epealdia eta administrazioak zehaztutako epealdi partzialak bete beharko ditu.

Enpresa kontratistak ez badu betetzen aurreko epealdi horietako bat berari egotz dakioken arrazoi batengatik, Administrazioak bi aukera edukiko ditu: kontratua suntsiarazi edo zehapen ekonomikoa ezarri. Zehapenen zenbatekoak ezaugarrien taulako U) idatz zatian finkatu dira.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLko 195.2 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Nolanahi ere, enpresa kontratistaren atzerapena ezartzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aurretik interpelatzea ez hertsatzea.

13.5.- KALTE-GALERAK.

Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo burutzapenean atzerapena gertatu eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharreko zehapenak ez baditu estaltzen Administrazioari egindako kalteak, horrek kalte-galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.

13.6.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI. Enpresa kontratistak eskubidea edukiko du kontratuan ezarritako baldintzekin eta horien aldaketekin (egonez gero) bat etorri Administrazioari egindako eta hark formalki jasotako hornidurak kobratzeko, itundutako prezioak aplikatuz. Kontratuaren xedearen prezioa ordaintzeko modua ezaugarrien taulako V) idatz zatian ezarriko da.

Hornidura hainbat ondasun ematetan gauzatzen bada, ordainketa partzialak egin ahal izango dira, baldin eta ezarritako epealdiak betetzen badira eta hornidurak SPKLko 300. eta 301. artikuluetan ezartzen denarekin bat etorri egiten badira.

Abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuaren bidez foru administrazioako fakturen kontabilitate erregistroa sortzen da eta hori izapidetzeko prozedura onartzen da. Bertan ezartzen dena betetzeko, enpresa kontratistak formatu elektronikoa aurkeztu beharko ditu fakturak horretarako berariaz ezarritako prozeduraren bitartez.

Emandako ondasunak kontratuan zehaztutakoarekin bat datozela frogatzen duten dokumentuen onarpen egunetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen ordaindu beharko du prezio Administrazioak; nolanahi ere, SPKLko 210. artikuluko 4. idatz zatian ezartzen dena aplikatuko da. Ordainketan atzeratzen bada, epealdia amaitu ondoko berandutze interesak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, bai eta kobrantza kostuen ordaina eman ere, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezartzen duenarekin bat etorri (horren bidez eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dira), SPKLko 198.4 artikuluan xedatzen den bezala.



Ezaugarrien taulako W) idatz zatian ezarri gero, enpresa kontratistak konturako ordainketak jaso ahal izango ditu kontratuaren xedean ezarritako prestakuntza eragiketengatik, SPKLko 198.3 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik. Berak eskatu beharko ditu.

13.7.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK. Kontratuaren araubide juridikoaren ondoriozko betebeharrak orokorrean gainera honako betebeharrak berezi hauek ere edukiko ditu kontratistak:

a) INGURUMENARI, GIZARTEARI ETA LANARI DAGOKIONEZ. Enpresa kontratatzaileak ingurumenari, gizarteari eta lanari dagokion indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, Europar Batasuneko zuzenbidean, nazio mailako zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarekin lotura duten ingurumen, gizarte eta laneko nazioarteko zuzenbide xedapenetan ezarritakoak daudenak, eta bereziki SPKLko V. eranskinean ezarritakoak.

Zehazki:

1. Eman beharreko prestazioak lan ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, hitzarmen kolektiboan edo lan ordenantzan ezarritako xedapenak bete behar ditu.

2. Enpresak laneko arriskuen prebentziorako behar diren neurri guztiak ezarri behar ditu. Halaber, indarreko araudiak laneko arriskuak saihesteko ezarritako betebeharrak bete behar ditu eta honako betebeharrak hauek bete dituela frogatu behar du kontratatutako jarduerari hasi aurretik:

- Kontratatutako jarduerari dagokion prebentzio jardueraren arriskuak eta plangintza ebaluatzea.

- Kontratuaren betetzeko lanetan ari diren langileei prebentzioari buruzko trebakuntza eta informazioa ematea.

- Beharrezkoak diren banakako babes ekipamenduak eman direlako egiaztatzea.

3. Enpresak lan batzuk azpikontratatu baditu, azpikontrastei aurreko betebeharrak egiaztatzea eskatu beharko dizkie eta administrazio kontratatzaileari eman beharko dizkio. Gainera, segurtasun eta osasun koordinatzaileari jakinarazi behar dizkio azpikontratazioak, lanei ekin aurretik.

4. Langileek lanean ari direla istripua izan edo kalteren bat jasanez gero, adjudikaziodunak indarrean dauden arauak xedatzen dutena bete behar du bere erantzukizunpean. Administrazioak ez du edukiko inolako erantzukizunik.

5. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziatio kolektiboko akordio batek agintzen duela eta ezaugarrien taulako X) idatz zatian ezarri gero, enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da laneko harremanetan eraginpeko langileei dagokienez. SPKLko 130. artikuluan ezartzen dena betetzeko, ezaugarrien taulan subrogazioaren eraginpeko langileen kontratuen baldintzei buruzko informazio guztia biltzen da.





b) KONTRATUA GAUZATZEKO EGIN BEHARREKO GASTUAK. Enpresa kontratistaren kontura izango dira erakunde ofizialen zein norbanakoen lizentziak, agiriak eta bestelako informazio guztiak eskuratzeko egin beharreko gastu guztiak. Halaber, kontratistaren kontura izango dira indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko zerga, eskubide, tasa, konpentsazio, karga eta gainerako gastu guztiak ere (haietan ezarritako kopuruak aplikatuko dira).

Enpresa adjudikaziodunak bere kabuz eskuratu behar ditu kontratua betetzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, hala ofizialak nola banakoenak.

c) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK. Kontratuaren adjudikazioa daukan enpresak eta egon litezkeen azpikontratistek kontratua gauzatzean bi hizkuntza koofizialak (euskara eta gaztelania) erabiltzen direla bermatu beharko dute, eta jarduera elebitasunarekin eta herritarren hizkuntza eskubideen errespetuarekin lotuta egon beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuetao xedapenekin, Euskararen Normalizaziorako 10/1982 Legean, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan eta Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetan jasotako xedapenekin bat etorriz.

13.8.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK. Enpresa kontratista adjudikaziodunak Administrazioak Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren gardentasunerako, herritarren parte hartzerako eta gobernu onerako otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauko III. kapituluko betebeharrak betetzeko egiten dituen informazio eskakizunei erantzuna eman beharko die, eta kontratua gauzatzean kontratuaren xedarekin lotutako izaera sozialeko eta ingurumeneko baldintzak eta bestelako baldintza bereziak aplikatu beharko ditu (horiek guztiak ezaugarrien taulako X) idatz zatian zehazten dira).

13.9.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenerako SPKLko 214. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da. Kontratuaren adjudikazioa daukan enpresak haren zati bat hirugarren batzuei azpikontratatu nahi izanez gero, SPKLko 215. artikuluan ezartzen dena bete beharko du, eta enpresa azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketak lege bereko 216. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz egin behar ditu.

Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa ezaugarrien taulako Y) idatz zatian zehaztuta egongo da; bertan ezarriz gero, enpresa lizitatzaleek eskaintzan honako datu hauek eman beharko dituzte: zenbat azpikontratatzeko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa, eta lanak gauzatzeko aginduko zaien enpresa azpikontratisten izenak edo profilak, gaitasun profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.

Edonola ere, kontratua adjudikatu ondoren, eta gehienez ere kontratua egiten hasten denerako, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazi beharko du zenbat nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatu duen, nor den enpresa azpikontratistaren legezko ordezkaria (edo ordezkariak), eta harremanetarako datuak eman beharko ditu. Horrez gain, justifikatu egin beharko du enpresak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez, eta baieztatu egin beharko du enpresak ez duela kontratatzeke debekurik, eta informazio hori kontratu nagusia gauzatzean aldatzen bada, horren berri eman beharko du, bai eta enpresa azpikontratista berriei buruzko informazio berri guztia ere.



13.10.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da bakarrik, ezaugarrien taulako Z) idatz zatian edo SPKLko 205. artikuluan ezartzen den bezala (kasuak eta modua), SPKLko 207. artikuluan arautzen den prozedurarekin bat eginez.

Kasu hauetan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat; hala ere, 205. artikuluan zehazten diren kontratu aldaketak ez dira derrigorrezkoak izango, horiek derrigorrezkoak izateko gertatu behar baita banaka edo batera kontratuaren hasierako prezioa ez aldatzea ehuneko 20 baino gehiago, BEZ kanpo.

13.11.- KONTRATUA ETETEA. Honetaz SPKLko 208. artikuluan eta HAKLAOko 103. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

Kontratua aldi batez (zati bat edo dena) edo behin betiko eteten bada, etete akta egingo da eta bertan honako datuak jaso behar dira: Administrazioak kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak, kontratuaren burutzapena zertan den eta eteteak ukitzen dituen kontratuaren zatiak.

Etetea erabakitzen denean, Administrazioak enpresa kontratistari jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio SPKLko 208.2 artikuluan adierazitako arauekin bat eginez.

13.12.- KONTRATUA ONARTZEA ETA LIKIDATZEA. Kontratua SPKLko 210. eta 300. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorri jasoko da.

13.12.1.- Enpresa kontratistak xedea oso-osorik egindakoa, kontratuan ezarri bezala, kontratua betetzat joko da, Administrazioa ados badago.

Kontratua amaitu dela jasota gera dadin, Administrazioak hura onartzeko egintza formal eta positiboa edo adostasun egintza eskatuko du entregatzen denetik edo kontratuaren xedea burutzen denetik hilabete pasatu baino lehen, edo ezaugarrien taulako AA) idatz zatian ezarritako epeldian.

Kontratazio organoak enpresa kontratistak kontratua ezarritako baldintzei lotuta burutu duenez ebatziko du SPKLko 190 eta 191. artikuluetan ezartzen diren ahalez baliatuz.

Ondasunak jasotzeko moduan ez badaude, horren berri adieraziko da onarpen aktan eta enpresa kontratistari antzemandako akatsak zuzentzeko zer egin behar duen azalduko zaio edo eskatuko zaio beste hornidura bat egiteko itundutakoari lotuta.

13.12.2.- Onarpenaren akta egiten denetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen kontratuaren likidazioa egin beharko da eta enpresa kontratistari jakinarazi beharko zaio, eta likidazio horren emaitza ordaindu beharko zaio.

13.13.- BERME ALDIA. Onarpenaren akta egiten denetik berme aldia, ezaugarrien taulako AB) idatz zatian ezartzen dena, hasiko da zenbatzen. Berme aldian Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, enpresa kontratistaren erantzukizuna azkenduko da (ezkutuko akatsengatikoa ez beste guztia), eta ondoren bermea itzuli edo kitatuko da eta, bidezkoa bada, ordaindu gabeko kopuruak ordainduko dira.

Berme aldian hornitutako ondasunetan akats edo bizioren bat dagoela egiaztatzen bada, Administrazioak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio ondasun akastunen ordezkoko hornitzeko edo konpontzeko.



Berme aldia Administrazioak erabakitzen badu ondasunak ez direla egokiak kontratuaren xedea betetzeko enpresari egotz dakizkiokeen akats edo bizioen erruz, SPKLko 110 e) eta 305. artikuluetan xedatzen dena aplikatuko da.

Berme aldia Administrazioak ez badu formalizatzen SPKLko 305. artikuluko 1. eta 3. idatz zatietan aipatzen dituen eragozpenetako bat edo salaketa, enpresa kontratistak ez du edukiko erantzukizunik emandako ondasunengatik eta bermea itzuliko zaio.

Berme aldia amaituta dagoela, kontratua bukatzen den egunetik urtebete pasatu ondoren kontratuaren onarpen formala eta likidazioa ez badira egin eta arrazoiak ezin bazaizkio egotzi enpresa kontratistari, bermea itzuli edo kitatuko da, gehiago luzatu gabe, SPKLko 110. artikuluan aipatzen diren erantzukizunak argituz gero.

13.14.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. Kontratua SPKLko 211. eta 306. artikuluetan ezartzen diren kasuetan suntsiaraziko da. Kontratua suntsiaraztea kontratazio organoak erabakiko du, ofizios zein enpresa kontratistak eskatuta (entzunaldia bermatu behar zaio). Suntsiarazpenak SPKLko 212., 213. eta 307. artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Ezaugarrien taulako U) idatz zatian kontratua ez betetzeagatik zehapenak ezarri ezean, burutzapen baldintza bereziak, ezaugarrien taulako X) idatz zatian zehazten direnak, kontratuaren ezinbesteko betebeharrak izango dira SPKLko 211.f) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako.

Era berean, kontratuaren ezinbesteko betebeharra izango da ezaugarrien taulako J) idatz zatian eskatutako giza baliabideak edo materialak nahikoak direla atxikitzeko konpromisoa.

Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea atxikiko zaio eta, gainera, bermearen zenbatekoak kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galeren ordaina ere eskatuko zaio.

13.15.- KONFIDENTZIALTASUNA Agiri honen xedea gauzatzeko *Administrazioaren* titulartasuneko fitxategietako datu pertsonalak eta tratamenduak erabili behar badira, entitate adjudikaziodunak tratatu beharreko datuen tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, bat etorritik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datuen babesarenak (DBEO), 28. artikuluan eta Estatuan hura garatzen duen araudiak xedatutakoarekin. Konfidentzialtasunari buruzko klausuletan arautuko da nola tratatu behar dituzten hirugarrenek datu pertsonalak. Entitate adjudikaziodunak bete beharreko agirien ereduak agiri honen XII. eranskinean daude.

Era berean, adjudikazioaren publikotasunari eta enpresa hautagai eta lizitatzailaiei eman beharreko informazioari buruzko SPKLko xedapenak albo batera utzi gabe, kontratazio organoak ezin izango du hedatu enpresek III. eranskinean konfidentzialtat (sekretu tekniko edo komertzialak direla eta) jotako informazioa. Hala, enpresak arrazoitu egin beharko du zergatik diren konfidentzialak.

---

## **VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

### **14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

14.1.- Kontratazio organoaren eskumenak dira: kontratu administratiboak interpretatzea; kontratua betetzean sortzen diren zalantzak argitzea; kontratuak aldatzea interes publikoko



arrazoiak direla eta; kontratua gauzatzean enpresa kontratistari egotz dakioken erantzukizuna adieraztea; kontratua etetea; kontratua suntsiaraztea eta horren ondorioak zehaztea. Egiteko horietan SPKLk eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio publikoen kontratuen Legearen arautegi orokorra onartzen duenak, ezartzen dituzten mugak eta baldintzak aplikatuko dira.

Era berean, kontratazio organoak enpresa kontratistek kontratua burutzeko lanetan egindako jarduerak ikuskatzeko eskumena du, aurreko lege horretan ezartzen den bezala eta bertan zehaztutako mugen barnean.

Kontratazio organoak kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatuta ematen dituen erabakiak berehala bete beharko dira.

14.2.- Kontratu honen interpretazioaz, aldaketaz, suntsiarazpenaz eta ondorioez sortzen diren auziak kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu. Honen erabakiek administrazio bidea agortuko dute, eta haien kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezarritakoarekin bat etorrira, eta kontuan izanda interesdunek berraztertze errekurtsua jar dezaketela, 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritik.

14.3.- SPKLko 44.2 artikuluan zehazten diren ekimenei buruz administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik kontratazioaren alorreko errekurtsu berezia jarri ahal izango da. Errekurtsu berezi horiek aztertzea eta ebaztea Arabako Foru Aldundiaren Kontratu Errekurtsuen Foru Organo Administrazioaren egitekoak dira (organo hori irailaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren 44/2010 Foru Dekretuaren bidez sortu da).